

Lehen Hezkuntzako 3. mailako banakako ebaluazioa

2016-2017 ikasturtea

Matematika gaitasuna

BURUZKO KALKULUKO ARIKETA

Irakaslearendako jarraibideak

- Giro egokia ezarri, arretatsu eta isilik egon daitezen
- Eskatu ikasleei koadernoan 3. orrian irekitzeko, eta azaldu 1. ariketa egin behar dutela; haren barrenean sei ariketa daude, buruzko kalkulukoak.
- Adierazi kalkuluko ariketa bakoitza bi aldiz irakurriko dela, tartean 5 segundoko eten txiki bat eginda.
- Irakurri bi aldiz ariketa bakoitza, intonazio egokiarekin, behar diren etenak eginez eragiketetan.

A kalkulua	Atzo 6 marrubi gosaldu nituen, hamaiketakoan 8 marrubi jan nituen eta meriendan 7 marrubi. Guztira zenbat marrubi jan nituen atzo?
B kalkulua	Gure arrebak/ahizpak 6 marrubi jaten ditu egunero. Zenbat marrubi janen ditu 7 egunetan?
C kalkulua	Nekazari batek 5000 marrubiondo landatu nahi ditu. 4000 marrubiondo landatuak ditu. Zenbat falta zaizkio landatzeko?
D kalkulua	$56 + 11 =$ (56 gehi 11 berdin...)
E kalkulua	$48 : 6 =$ (48 zati 6 berdin...)
F kalkulua	$6 \times 4 - 7 =$ (6 bider 4... bi segundoko etena... ken 7 berdin...)